

BAZKIDE GARRANTZITSUAK (Funtsezko sozietateak) (3)

Gure bazkide garrantzitsuak hornitzaileak eta banatzaileak dira. Hornitzaileen barruan, Tolosaldeako ikastola edo enpresa ezberdinak daude. Plastikoko bilketa hau ez dute kobratuko beraiek ez baitiote baliorik aterako eta gure enpresak erabilpen on bat emango lioke. Beraiekin aurre ikusitako kontratua, hiru hilabeteko bildu eta behar ez duten plastikoa ematea da. Banatzaileekin aldiz aurrekontratu bat dugu, saldutako zaborrontzien araberakoa. Herrialdeko banatzaile bat daukagu azpikontratatuta. Gure enpresak gehiago saldu ahal izateko slogan bat edukiko luke "Birziklatu eta hirugarren mundua salbatu", inguruko dendetan ere salgai egongo dira, publizitatea ere egingo genioke aldizkari, kartel eta telebistan. Gure aliantzak Tolosaldeako denda txiki nahiz handiak izango liriateke, denda asko erdigunean baitaude eta beste batzuk handiak direnez ezagunagoak izango liriateke. Horrez gain, internetez salduko dugunez edonork eros dezake dagoen tokitik.